



Jean Baptiste Coyos

Le parler basque souletin des Arbailles

Une approche de l'ergativité

L. Harmattan. Paris 1999

Ipar-hegoaldeko ertzetik euskarari iheska doakion txori erresinola da Zuberoa. Antzinako xirularen soinu bizi ernagarriaren ahots eta dantzari gorri-urdirin jauzkari alaien zango, pastoralen antzerki tradizio zaharra gaurregungo herri-kultura bitxi bihurtu du munduan eta bere kantuen xarma paregabea bihotzean daramagu euskaldunok. Euskal Herri zaurituaren aurpegi alaia da Zuberoa. Musika eta kolorea, irrintzi eta festa.

Baina, ez da hori Jean Baptiste COYOS ikerleak bere liburuan aztertu duen gaia. Hizkuntza da pentsamenduaren jantzia, sentimentuak agertzeko tresna eta mendez mende herriak kaier gorpuztu gabea idatzitako historia. Mintzaira –bere zubera alegia– hartu du gaitzat, ez nola mintzatu behar litzatekeen orain ne-hori erakusteko edo maisuentzat arauak eskainiz, gaurregun zer eta nola erabiltzen den ikusi eta sakondu nahian baizik. Herri-inguru mugatu zehatz bateko mintzaira du begi-bellarrietan egileak: Arbailakoa. Hots, Mendi, Alzürükü eta Urdiñarbeko

lekukotasun berezia dakarkigu bere orrietan liburukiak. Ez dira nahi bezain ugari zubererari buruz egindako ikerlanak, eta aspaldikoak bestalde; hutsune nabaria betetzen du bertatik datorren Hausnarketa baliotsuak. Hango herri-hizkuntzaren lekukotasuna da, beraz, azterlanaren lehen ekarpena, eta ahoz aho datorkigun eredu horretan oinarritzen da gero ikerlearen lana.

Gizarte aldaketa larrien ondorengo ikuspegi arinetik begiratuta zertako balio dezaketen horrelako lanek, esango du norbaitek. Zuberera dagoen egoeran ikusita, datorkiokeen une garrantzeko hil-ezkilak aitzinetik jotzea ez ote den, erran lezakete etsipenaren ezpainek, arnasarik baldin baidu etsipenak. Arrangura hau buruan du COYOS jaunak lehen orrietan, eta mintzairaren ahultasunari mugak ezartzeko bidea *irakaskintza* dela dio zuhurki, eta mintzatzen saiatzea. Une honetako egoera ez da noski hobere-na. Duela hogeit bat urte hasi bazen ere euskara irakasten Zuberoan, ez omen da lan sistematikorik egin He-

goaldean bezala. Zoritxarrez, ofizialtasunik ez du euskarak Frantzian eta lortzeko itxaropen guti. Hizkuntza ttipituen aldeko Europear Karta Nagusia ez dute izenpetu Parisko agintariak harroki errepikatzen dutelarik frantsesa dela Frantziako hizkuntza ofizial bakarra. Etorkizun iluna sumatzen zaio beraz lege aldetik euskalki ttipitu honi, hasteko legez kanpo ezarri duten ehorzleek –lurperatzaileek alegia– bai dute etorkizunaren gako eta aitzur bortitza.

Herriaren esku geratzen da beraz itxaropenaren argi izpi bakarra. Mintzaira bat ez dute etsaiek zokoratzen, aginte indartsuena izanik ere partida, mintzo dutenen mihiek baizik. Bihotzari darion ele goxoa ez da inoiz hilko. Hortik aitzina, hizkuntza mehatxatuen pizkunderako bide eta modu egokiak badaude gaurregun, eta Fishman aipu du espreski COYOS jaunak lanbide horretako bideurratzaile nagusien artean. Bizi nahia da baldintza nagusia. Antolamendu on baten barnean urratsez urrats oinarriak sendotuz lortzen da gero helburua. Ez da bakarra Europan zehar euskararen egoera txarra. Maisu eta hizkuntzalarien lana behar-beharrekoa da orduan, eta ildo horretatik interesgarria izan daiteke zubereraren ezaupen sakonerako zientziaren euskarriarekin COYOS jaunak egindako ikerlan mamitsua.

Liburuan zeharka bakarrik ukitzen bada ere ahuleziaren arazo larri hau, Etchahoun handiaren euskalkia euskararen mapatik kanpo gelditze-ko bidean doa une honetan, eta galera hori euskaldun guztiontzat da galera. Ikerlana garrantzitsua da beti, zalantzarik gabe, baina ez al da garrantzitsuago hizkuntzaren bizia, iraupena alegia? Ardi hilaren inguruan bildutako artzainen solas antzekoa gerta daiteke bertzela ikasien emaitza ponpoxa. ‘Mando hilari

buztanetik zaldarea’, zaharren hitzetan.

Arbailako mintzaira kutunak izan beza garaiz, ofizialki ez duen eskukaldi baliagarririk. Ulergaitza da euren burua herri aitzinatutzat daukaten Frantziako agintarien jokabidea hizkuntzei buruz. Haitzuloetako gizonaren burubide hertsien parekoa da XXI. mendearen atean hizkuntzen altxorra aintzat hartzen ez duena. Frantsesaren duda gabeko aberastasuna aho betean aldarrikatzen dute agintari horiek berek Europa berrian ohorezko lehetasuna lortu nahian euren hizkuntzarentzat. Mendebaleko mintzaira zaharrenaren altxor bitxia berena *ere* izanik, zergatik dute arbuatzen? Ahalgearria.

Ikerlana

Jean Baptiste COYOS hizkuntzalaria da. Berriki lortua du Parisen doktoretza. *Description du parler basque souletin des Arbailles* izenburuarekin, 1998an aurkeztu zuen Sorbonan tesia, eta berorren laburpena da orain plazaratutako liburua. Hamar ataletan banatzen du gaia, fonetika, fonologia eta morfologiarekin hasi, sintaxia eta semantikaren ondotik izen eta aditza aztertu, eta ergatiboarekin amaitzeko. 432 orrialde orohar.

Aho-tradizioko testuak biltzeaz bertzalde, beraz, gaien sailkapena eta gramatikari dagozkion atal nagusien ikuspegitik aztertu ditu lekukotasunak ondore baliotsuak ateratzeko. Luze joanen litzateke izen eta aditzen sintagmei buruz, hala nola sintaxia eta perpausen baitako korreferentziak direla eta aurkitu dituen ondore guztien xehetasunak ematea. Jinen dira gero jakintsuen oharrak eta teoria mailan dabilzananen orrazte eta onarpenak. Liburuaren berri ematea da oraingo azalpen xume honen xedea, denbora gehiago behar bailitza-teke arrotz zaizkigun forma askoren

funtsaz jabetu eta iritzia emateko. Adibidez, kasuen funtzioko eta egin-kizun semantikoen arteko korrespondentzia, euren aldaketan arabera, badirudi kasu-adierazleak maila semantikoan duen izaera zertxobait motibatuagoa ahultzera jotzen duela, -dio ondoreetako bat bezala.

Bereziagoa da zuberoko fonetika eta fonologiaren kasua. Bertako mintzairaz ontsa jabetu eta berez belarria egina zaionari errezago izanen zaio, noski, zientzia mailako arauekin azentua eta doinua hartu, berezi eta formulatzea. Ekarpen hau kontuan hartzekoa da iturriari zuzenean baidario. Euskararen azentua oso loturik egon ohi da hitzen laburdura eta sintagmen elkartzeko moduarekin. Badirudi, bertzalde, toki batzuetatik bertzetara desberdintasun nabarmenak aurki daitezkeela. Nola nahi ere, ez dago finkaturik euskalkien azterketa sistematiko bat gai honetan eta nekez mintza gaitezke azentuaren arau nagusiei buruz, euskalki eta herrialdeen arteko parekotasun eta diferentziak ongi zehaztu gabe. Egoera honetan, biziki ontsa ikusiak dira han-hemenka egiten diren lanak eta, Zuberoko ereduaren testigantza eskaintzen du liburuak.

J. B. COYOS jaunak saioan bereziki azpimarratu nahi izan duen gaia, halere, ergatiboarena izan da. Gai korapilatsua, zeinetan munduko hizkuntzalariak ez bai datoz bat. Euskara hizkuntza ergatiboaren artean hartu ohi da aspaldidanik, Europa aldeko bakarra berezitasun hori duena. Kaukaso aldeko herriak dira antzekorik duten hurbilenak. Afrikako hizkuntzetan ez dute nabaritu edo ez dute erran badenik ikerlariek. Ameriketara eta Australian, alderantziz, bai.

Labur bilduz, perpaus iragangaitzaren subjektua eta perpaus iragankorraren objektua kasu berean agertzen direnean esan ohi da hizkuntza bat

ergatiboa dela. Baina, gauzak ez dira hain argi hizkuntzalarien artean. Lehenik, *Iragankorra* eta *iragangaitza* hitzekin ze adierazi nahi den mugatu behar litzateke. Horretarako, aditz bakoitzak berekin har ditzakeen osagarri edo sintagmen kopuru eta izaera kontuan hartzen dira. Kopuruaren aldetik, iragangaitzak elementu bakarra hartzen du, *ni* ibili naiz; iragankorrek aldiz bi, *nik* ekarri dut *ogia*.

Baina arazoa ez datza horretan bakarrik. Ikasiek diote aditz iragangaitzen artean badela diferentziarik subjektuari dagokion *izaeran*, eta sintaxiak berak ere alda dezakeela ergatiboaren portaera. Ez da guk erabakitzeke auzia, eta oihan estuan murgildu gabe, ezin ukatua da euskarak badiuela ergatibo formak. Bertzalde, forma horiek ez dira beti betetzen eta *ergatibo-hautsia* da batzuentzat gure hizkuntzarena. Ez da falta jakintsuen artean euskara hizkuntza ergatiboa *ez* omen dela esaten duenik ere. Ikuspuntu desberdinen kontraesanak.

Ikerleak badaki hori, baina Dixonen bidetik doa. Euskarak, egilearen erranetan, kasu-adierazle nagusi *bat* du eta ze eratakoa den aztertzen saiatzen da, bai sintaxi, bai semantika eta, nahiz hein ttipiangoan, 'enuntziatuzko' esparruetan. Bere ondore nagusia ergatiboari buruz honako hau da: "Joskera edo sintaxi akusatibodun mintzaira baino areago, egiazko *ardatzik* gabeko hizkuntza, edo guti markatutako ardatza duena," omen da euskara.

Alde horretatik datorkioke, behar bada, liburuari desadostasun zenbait, badelarik autoreetan euskara *nominatibo-akusatibo* hizkuntza bezala ikusten duenik. Nola-nahi ere, irinean sartu da eta bere iritzia eman du. Hori da ikertza lanen kinka inoiz aitzinamendurik egingo bada.

Doktore berria Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorrean Hiz-

kuntza Politikarako sailean sarturik dago, Kultura eta Kiroletako Zuzendaria delarik. *Fontes Linguae Vasconum* aldizkari honetan pare bat lan

argitaratuak ditu eta itxaro dugu beregandik ondorengo emaitzarik.

J.M.S.